

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/2/17 | 358

- ⑥ May Gorostiaga eta Antton Izagirre
- ⑥ Iñauteriei jarritako bertsoak
- ⑥ Mikel Urdangarin
- ⑥ Irakurlearen begietatik: Harkaitz Cano, Twist
- ⑥ Karlos Linazasoro



Tolosaldeko
Bilgune Feminista:
Hamaika
egiteko ari gara





Kalitatea eta segurtasuna zure zerbitzura - Ezkontzak, irteerak, ikastetxeak, autobus literadunak ganez lasai bidaiatzeko...

Tel.: 666 489 010 / 11
(24 orduak)

Tel.: 943 305 050

(Garajea)

Faxa: 943 305 060

(Garajea)

Ubilhus antzunea, 55 polig.
9 pabilioia, 4 zbkia. ANDOAIN (Gipuzkoa)

SUPER EKO
SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua



Lagun Aro-ren partidarako,
VIP gunean, 2 sarrera
bikoitza zozketatzen dira.

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

NUTRIZIO AHOLKULARITZA



AMAIA ETXETXIPIA

* BIOLOGIAN* lizentziatua eta *GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN* Diplomaturak

DIETA PERSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

ARIKETA FISIKOA

HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

LEOHIDAS IZANGO BAZINA,
EZ ZEHARKE ALKORRA HAU PRASATZEN UTZIKO

300

CITROËN C3
AIRE BIKOTZATZENA
8.800€^{***}



REMOVE CITROËN PLANIA
3.000€^{***}
ZURE KOTXE ZAHAR
IRAGAITZA^{***}
GUTURRUA

OTSAILAREN 29A BITARTE SOILIK,
OPERAZIO BEREZIA:
300 CITROËN C3.

CITROËN C3 TONIC EKIPAMENDUA: AIRE EGOKITUA / 4 AIRBAG / BAS, ATZERAKO ISPLIA ETA ASR / CONNEN-
TING BOX MP3 IRRATIA / BLUETOOTH ETA USB / BARNE
ORDENAGAILUA / ERRETROVISORE ELEKTRIKOAK.

KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO2 EMISIOA
(G/KM): CITROËN C3: 3,4 - 6,6/87 - 153

*Garrantziak: Citroën C3 1.5i 1000cc, garrantzi eta Berruz Plania berria.
**Bazterre partikularretan berberena, 3 hilabetez ordu erabilerarekin.
***Bazterre osoa: 4.000€tik lehiatzen diren erabilerak eta berberena erabilerak.
40 hilabete irauneko ibarria. Hiltzearen ondoren, Peugeot PSA Finantza-zerbitzua.
Modelo: Citroën C3. Informazio gehiago: www.citroen.com

IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G. TEL: 943 651 842 ANOETA/TOLOSA



galtzaundi
EUSKARA TALDEA

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefona: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia,
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundi ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

nonzer



Erreportaia:
Tolosaldeko Bilgune Feminista: Hamaika egiteko ari gara

Bilgune Feminista Emakume Abertzaleon V. Topaketa ospatzera doa martxoaren 2, 3 eta 4an Leitzaan. "Hamaika egiteko ari gara" lemapean ekingo diete herri mugimenduen 10. urteurrenean. Topaketen inguruan zein Tolosaldeko Bilgune Feministaren nondik norakoak gertuagotik ezagutu asmoz Eider Elduainen, Ane Etxebeeste eta Oihana Lopetegirekin elkartu da Galtzaundi.

8-11. orrialdeak

"Axola al zaizkigu gure seme-alaben hizkuntza portaerak?", gal-detuz hasi zuen Paula Kasares soziolinguistak Orixe institutoan eskaini zuen hitzaldia. Ikastetxez kanpoko jardueretan euskara erabiltzeak duen garrantzia nabarmendu zuen.

Paula Kasares

14-16. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: May Gorostiaga eta Antton Izagirre	4-5
	Iñauteriei jarritako bertsoak	6-7
	Mikel Urdangarin	12-13
	Irakurlearen begietatik: Harkaitz Cano, Twist	17
	Kultura: Karlos Linazasoro	18-19



May Gorostiaga
Teatreroa

(Intujai Teatro, Amarozko Antzerki Artisauak...)

Oraingo garaian aspertuta gaude jada "ismo"-arekin bukatzen diren hitzak entzuteaz: Matxismoa, faxismoa, fundamentalismoa, arrazismoa, kapitalismoa, pesimismoa...

Baina gure gizartean oraindik debekatuta dago horrelako beste hitz honi buruz hitz egitea: "Sanismoa".

Eta zer da sanismoa?

Gaixo gaudenean gaixotasun bat daukagula esaten dugun bezala sanismoa edukitzeko sanotasun bat eduki behar da (Beno, sanotasun bat gutxienez). Gaixotasun asko birusek sortzen badituzte, sanotasunaren kasuan "bizirusak" dira arduradunak. Eta nahiz eta gaur egun ezinezkoa dirudien, sanotasun asko daude eta "bizirus" mordo bat daukagu gure inguruan.

Bizirusak edozein forma hartzen dute gugan barneratzeko: irribarrearen forma,

besarkadaren forma, hitz goxo batena...

Kontuz ibili, oso kutsakorra da eta denok arriskuan zaudete sanismoa harrapatzeko. Hobe da horietaz goiz konturatzea.

Nik aitortu behar dut sanista naizela. Horrela jaiointzen. Kasu gehienetan horrela sortzen da sanismoa, gurasoen herentzia. Baina beste batzuetan kutsapen bidez transmititzen da eta ez dago txertorik horren aurka.

Hedatzeko bide asko daude: hitz egiten-entzuten, ikusten-erakusten, sentitzen-sentiarazten, pentsatzen-pentsarazten, idazten-irakurtzen...

Barkamena eskatu behar dizut, irakurle maitea, nire sanismoa zuri kutsatzeagatik. Testu hau irakurtzen bazaude sanista kronikoa bihurtuko zara.

Noizean behin zure sanotasuna ez sinesteko eta bestearen aurrean ez erakusteko katarroren bat harrapatuko duzu, edo saiatuko zara sukarra izaten, edo zerbait larriagoa asmatuko duzu sanismoan ez sinesteko.

Jende asko bata zuria duten pertsonak bisitatzerako joaten da, beraiek ziurta diezaieten sanismoa desagertu dela eta gaixotasun bat azaldu dela.

Hala ere bata zuridunek badakite sanismoa kronikoa dela eta gaixotasun bat diagnostikatzen badute saiatzen dira bezero burugogorrek gaixotasunez ahazten pilule-

kin eta jarabeekin.

Argi eta garbi esan behar da, irakurle maitea: Bizitza osorako sanistak izango gara, sanotasuna transmitituko dugu eta egunen batean sanismoa ez badaukagu ez gara bizirik egongo.

Agian jakin nahiko zenuke zer sentitzen dugun sanistok. Ondo da, lagunduko dizut:

Sanismoa badaukazu zure bihotzeko taupadak txaranga baten doinuak bihurtzen dira eta erritmoa jarraituz zure gorputzaren zelula guztiak mozorrotzen dira eta melodiaren atzetik hasten dira saltoka eta dantzatzen.

Sanismoa baduzu zure globulu gorriak eta zuriak karrozak eta konpartsak bihurtzen dira eta etengabeko kalejira batean daudela sentituko duzu zure barruan.

Sanismoaren erpeetan bazaude ezingo dituzu zure barneko sanotasuna ateratzeko gogoak erreprimitu eta zure bizirusak konfetik bihurtuko dira besteei kutsatzeko.

Eta gainera kutsadurarekin batera "ondo pasa" esango diezu guztiei behin eta berriro.

Baina zergatik "ondo pasa"? Zer pasa dezakegu ondo?

Sanismoa, noski! Sanismoa, sanotasuna eta bizirusak.

Bizitza ihauteria da eta ihauteria berriz bizitza.

Beraz, sano jokatu eta ondo pasa!

Ondo pasa... zure sanismoa!!!

Sanismoa

Krisiaren hari luzea

Hain gertutik ezagutzera iritsi gara egoera, hain gertu kolpatzen gaitu egoerak, ez dago egunik ez eta unerik krisiaren atzaparrak geure haragitan hazka egiten sentitzen ez ditugunik. Prezioen gorakadak, soldaten murrizketak, lanorduen gutxitzeak, langabezia, den-dena krisiaren ondorioztat dugu. Lehenago urritikoa zena, egun etxerako bertara iritsi zaigu: eskualdeko lantokiak ixten ari dira, langabeziaren portzentajeak gorantz egiten dute egun batetik bestera, lantokiak ez dute egoerari eusteko dirurik, bankuak diru publikoa beharrez, instituzioak zorpeturik daude, produkzioa gutxituz doa...dena da krisia. Garai batean antzinako gizarteak mundua, natura eta gizakiaren sorreraren kausazko erantzuna behar izan zutenen dena Jainkoak eginak zela sinistu eta lasaitu ahal izan zuten sorrerari buruzko kezka. Geroago zientzialariek eman ohi zuten sorrerari buruzko erantzun zientifikoa baina hori guztioi esplikatzea baino errazagoa zen Jainko guztiz ahalduaren teoria bizirik mantentzea eta horretan diraute, gaur egun ere, erlijioek.

Hari honi tiraka hedatu dira munduan hainbat filosofia eta soziologia ikuspegi desberdinak, uanean, garaian eta tokian bizi zen egoeraren ondorio eta haren justifikazio gisa. XIX. mendean Britainia Handiko Herbert Spencer filosofo eta soziologoak gi-

zarte militarretik industria gizarterako eboluzioa gizar-tearen berezko eboluzio natural gisa esplikatzen zuten, non gizarte hartan gertatzen zen guztiak bazuen barne legea eta barne lege horri jarraitu besterik ez zegoen. Horrela, gizakiaren ontasunez, gizar-tearen erabateko garapenera iritsiko ginen eta hori izango zen industria gizartea. Bere baitan indartsuenen legerari erantzuten zion gizar-tearen eboluzioak. Ez estatuak, ez bestelako instituzioek ez zuten eragin behar eboluzioa aldatzeko. Pobrezia eta zoritxarra gizaki ahulen berezko ezaugarria zen eta inork ez zituen lagundu behar; horien patua desagertzea zen, onenen gizarteak aurrera egin zezan. Erabateko liberalismoa zuen abiapuntu eta jomuga.

Garai bertsuan Karl Marx filosofo eta soziologoak alemaniarrek errealtate berari beste ikuspegia aurrejarri zion. Gizarte eraldatu behar zegoen ekintzaren bidez. Gizakia zanpaturik zegoen, ez zen sortzailea, bere nortasuna suntsitzen ari ziren indarrak ziren industriaren eta bitartekoaren jabe zirenak. Gizar-tearen eboluzioak ez zuten barne lege iraunkorrik. Gizakiaren eraginpean zegoen eta estatuaren eta langile klaseen borrokaren bidez eraldatu zitekeen egoera sozialismoa lortu arte. Pobrezia eta zoritxarra ez ziren gizar-tearen ondorioa baizik: jardun gisa. XIX. mendean Britainia Handiko Herbert Spencer filosofo eta soziologoak gi-

zarte militarretik industria gizarterako eboluzioa gizar-tearen berezko eboluzio natural gisa esplikatzen zuten, non gizarte hartan gertatzen zen guztiak bazuen barne legea eta barne lege horri jarraitu besterik ez zegoen. Horrela, gizakiaren ontasunez, gizar-tearen erabateko garapenera iritsiko ginen eta hori izango zen industria gizartea. Bere baitan indartsuenen legerari erantzuten zion gizar-tearen eboluzioak. Ez estatuak, ez bestelako instituzioek ez zuten eragin behar eboluzioa aldatzeko. Pobrezia eta zoritxarra gizaki ahulen berezko ezaugarria zen eta inork ez zituen lagundu behar; horien patua desagertzea zen, onenen gizarteak aurrera egin zezan. Erabateko liberalismoa zuen abiapuntu eta jomuga.



Antton Izagirre
Irakaslea

Egunero komunikabideek gure burmuina kolpatzen dute kontzeptu, datu eta formula berrieekin.

kaltetu zehatzekin. Aurpegia jarri zien zapaltzaile eta zapalduerik.

Bi muturreko ikuspegi hauen arteko ereduak hainbat bilakaera izan badituzte ere eredu kapitalista izan da gizarte egituretan ongien egokitu dena, ongizate gizar-tea posible egin duen bitartean. Egun, gainean dugun krisiaren ondorioz ongizate gizar-tea gal zorian jartzeko arriskuan gaude. Galera horrek lagunduko ote du gizarte kapitalistaren porrota eragiteko nahiko indar metatzen; ala, gizar-tearen ezinbesteko patua dela sinistuko dugu?

Zoritxarrez, kapitalismoak baditu behin eta berriz berregiteko gaitasunak eta moldeak aldatuta ere, bere eragina mantentzeko. Krisiak kapitalismoak berak sortutako trikimailuak dira, urtetan Mendebaldeko gizar-tean

langile klaseak eta herritarrak lortu dituen esparruak eta eskubideak murrizteko, eta ondorioz, kargak gutxiturik, apur bat saneaturik berriro indarrez ekiteko. Krisia ez zaigun etorri, sorrarazi egin dute.

Baina aldi berean, gizarte berri batean beste giza harreman justuagotan sinesten dugunok aukera gisa hartu behar dugu bizi dugun egoera kezkarria eta askorentzat latza eta mingarria dena. Aukera gisa, indar politiko, sozial, sindikalak eta herritarrak ditugun botere eremu apurrak probestuz eta gizar-te aktibazioaren bidez eredu propioaren eraikuntzari ekiteko. Abiapuntu gisa, epe motz etaertaineko aspirazio sozio-politiko-ekonomikoa, lanpostuak lortzea eta pobrezia esparruak desagitea izan beharko luke. Ekiteko garaia da.

Iñauteriak

Doinua: Nire senarrarekin

Mozorroak zezenak barrakak ta festak eskolarik ez pozik mutil eta neskak alkatzak eta danger barraketan bueltak bost egun dira eta dotoreak bostak.

Ostegun gizenean txistorra jatera gero xexena ta han plazara atera exkaxagoak datoz urtetik urtera haiek jo ta ez zera helduko Martera.

Zezenplaza utzi ta kalejira kolpez jendea kalez kale karroza dotorez gurdi, remolke, kotxe, kamioi, tratorez kalea janzten dute dantza ta kolorez.

Zezenak ikusi ta gero barraketa jolastu eta gero txurro ta patata egin nahi badezue bi orduko buelta poltsikoak eraman goraino beteta.

Tabernak ixten dira goizean goizegi eta guk nahi genuke parrandakin segi paradetan taxirik ere ez da ageri inauteritan bada nahikoa komeri.

Danborra ta tronpeta nahikoa zarata ta jendea atzetik dijoa saltaka kaletan jartzen dute giroa aparta berotzekore zerbait beharko dala ta.

Parrandarako bada egunero aukera kalean gora behera aurrera ta atzera asteartera arte iristen bazera huts egin gabe joan pattar zezenera.

Zezenzaleentzako festa politena erabaki nahiean zein den ausartena ez da oso normala han ikusten dena jendeari alde egin ezinik zezena.

Alegiko eta Amezketako bertso eskolak elkarlanean jarritako bertsoak



Pirritx, Porrotx eta Marimotots

2 sarrera bikoitz zozketagailu!

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta Pirritx, Porrotx eta Marimotots Tolosako Leidor Aretoan izango dira datorren martxoaren 31n. Saio horretarako sarrera bikoitza opari jaso nahi izatekotan Galtzaundi Euskara Taldearekin harremanetan jarri besterik ez duzu, Galtzaundiko bazkide! (Nafarroa etorbidea, 6 behea. 943 65 50 04. erredakzioa@galtzaundi.com).

Sarrerak salgai otsailaren 27an, astelehenean "Zazpikoloroa" ikuskizuneko sarrerak otsailaren 27an, astelehenean, salgai jarriko dira Galtzaundiko bulegoan (Nafarroa etorbidea, 6 behea). Saio bakoitzerako (16.00 eta 18.30) zenbatutako sarrerak eskuratu ahal izango dira 7 euroren truke. Eskudirutan ordaindu beharko da.



Aita zombia naiz

pelikularako 10 sarreren zozketa!

Aita zombia naiz haurrei zuzenduriko animaziozko pelikula dagoeneko Euskal Herriko zinema areto ezberdinetan ikusgai dago. Galtzaundi Euskara Taldeak edozein saio, areto eta egunerako baliogarriak diren 10 sarrera zozketatuko ditu Galtzaundirekin harremanetan jartzen diren artean (Na-

farroa etorbidea, 6 behea. 943 65 50 04. erredakzioa@galtzaundi.com).

Zombie, sorgin eta gauean aritzen diren bestelako pertsonaiak gustuko badituzu, badakizu zer egin!



Tolosa Kantari dvd-a opari!

Miren Atxaga Arnedo izan da sariduna. DVDa jasotzeko Galtzaundiko bulegotik pasa besterik ez dauka.

Tolosaldeko Bilgune Feminista Hamaika egiteko ari gara

Bilgune Feminista Emakume Abertzaleon V. Topaketa ospatzera doa martxoaren 2, 3 eta 4an Leitzan. "Hamaika egiteko ari gara" lemapean ekingo diete herri mugimenduaren 10. urteurrenean. Topaketen inguruan zein Tolosaldeko Bilgune Feministaren nondik norakoak gertuagotik ezagutu asmoz Eider Elduaien, Ane Etxebeste eta Oihana Lopetegirekin elkartu da Galtzaundi.

Naiara Roldán de Aránguiz

Emakume Abertzaleon V. Topaketak martxoko lehen asteburuan luzatuko dira Leitzan, Bilgune Feministaren 10. urteurrena hizpide hartuta. Izan ere, orain arte elkarteak egindako ibilbidearen balorazioa eta aurrerantzean eman beharreko pausoak zehaztu dira, "Euskal Herri feminista eta parekide horretara iristeko asko dagoelako", diote. Hamar urte bete dira baina dauka Bilgune Feministak aurrerantzean ere.

"Ilusioz eta gustura" daudela dio Eider Elduaienek Emakume Abertzaleon V. Topaketaren atarian. Topaketa hauei begira Tolosaldeko Bilgune Feministaren egitekoa zabalkunde lana egitea da: "Leitza gure eskualdearekin duen gertutasuna kontutan harturik, Tolosaldeko emakumei bereziki deia egin nahi genien

topaketa hauetan parte hartzeko. Aukera ezin hobea da gure artean bildu, hausnartu, eztabaidatu eta ditugun kezka eta iritziak mahai gainean jarri eta ondorio garbi batzuk ateratzeko", dio Eider Elduaienek.

Topaketek hausnarketarako beta eskaintzeaz gain disfrutatzeko eta ondo pasatzeko aukera ere eskainiko die emakume feministei eta abertzaleei. Hausnarketari dagokionean ordea, Eider Elduaienek aurreratu bezala: "Euskal Herriko egungo egoera politiko eta sozialean zentratuko gara, aldaketa politiko eta sozialerako bideak proposatzeko ditugun, guk, feministok zer eskaintza egiten diogun herri honi izango da gai zentrala". Asteburuan ospatuko diren hiru mahai-inguru nagusiak Euskal Herriko egungo egoera politikoaren azterketaren bueltan arituko dira.

Martxoaren 2an, ostiralean, arratsaldeko 18.00etan hasita, mahai-inguru nagusiari eta eztabaidari helduko diote: "Prozesu demokratikoa eta emakumeon hitza: han eta hemen (Nazioarteko esperientziak ezagutu eta gurean fintzen joateko tarte)". Mahai gainean Honduras, Hego Afrika, Egipto, Ipar Irlanda eta Sri Lanka bezalako adibideak jarriko dira; nazioarteko gatazka politiko eta armatu hauetan "emakumeek zer inplikazio eta parte hartze izan duten" aurkeztuko da, dio Eider Elduaienek.

Bigarren eztabaida, "Eredu ekonomiko eta sozial feminista eraikitze bidean; gaurdanik, urratsak emanez" izenburuarekin ospatuko da larunbatean, goizeko 10.00etan hasita. Orduan, ikuspegi sozial eta ekonomikoari helduz feminismoak zer ekarpen egin dezakeen eztabaidatuko

da. Eta azkenik, igandeko mahai inguruak Euskal Herri feminista nola eraiki hausnartuko du: "Independentzia dugu bidea, eta helburua: Euskal Herria feminista", izenburupean aurrera eramango da.

Eztabaidak ordea ez dira topaketen egiteko bakarrik izango, tartean Eider Elduaienek zehaztu bezala tailer aukera zabala egongo da, gaiak oso anitzak direla: zaintza, elikadura subirautza, prostituzioa, osasuna, emakume presoak, autodefentsa feminista, hezkidetzeta, sexualitatea, komunikabideak eta emakumea... Honetaz guztiaz gain, kontzertuek, emanaldiek eta festek ondo pasatzeko aukera eskainiko diote bertan parte hartuko duten emakumei.

Eiderrek Elduaienek azpimarratu nahi izan du "topaketak emakumez-

koentzat" espresuki direla: "berez mahai-inguruak eta eztabaidatzeko guneak erabat emakumezkoentzat izango dira. Beharrezkoa da emakumezkoentzako espazioak izatea, non guk gure artean eztabaidatu eta iritziak eman eta gure ondorio propioak ateratzeko aukera izango dugun". Gizonezkoek ordea, sarrera askea izango dute kontzertuetan eta azken eguneko ondorioen azalpenean.


Oihana Lopetegik dei egiten die emakume guztiei Emakume Abertzaleon V. Topaketetan parte hartzeko: "era guztietako emakumeak, perfil ezberdinekoak eroso sentituko dira. Topaketetatik lanerako gogoekin aterako gara". Topaketetan parte hartzeko ordea, alde zuzeneko izena ematea gomendatzen dute Bilgune Feministatik; biderik errazena internet bidezkoa:

<http://2012topaketafeministak.wordpress.com/> helbideko blogaren bitartez. Hiru egunetarako izena emateak 25 euroko kostua du (otorduak barne) eta egun bakarrekoak 12 euro.

Tolosako Bilgune Feminista

Bilgune Feminista 10. urteurrenaren ospakizunetan murgildurik dago. Euskal Herri mailako taldea dela kontuan hartu beharrekoa da, hala ere, tokian tokiko taldeek dute zeresana eta guztien artean osatzen dute sarea. Eider Elduaienek zehazten duen modura "bakoitzak bere izaera propioa du, denok osatzen dugu sarea eta sare hori da Euskal Herriko Bilgune Feminista".

Tolosako taldearen baitan egun sei emakume biltzen dira: Ane, Oihana, Maritxu, Nekane, Onintza eta Eider. 2002an sortu zen, Oihana



Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa



BENTA ALDEA
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN



Korreo Kalea, 3
Tolosa



Emakume Abertzaleon V. Topaketa.

Leitza

Egitaraua

Martxoak 2, ostirala

16.00-18.00 Izen-ematea zinean
18.00-20.00 Mahai-inguru nagusia eta eztabaida: Prozesu demokratikoa eta emakumeon hitza: han eta hemen. (Nazioarteko esperientziak ezagutu eta gurean, fintzen joateko tartea).
20.00-02.00 Afaria eta emanaldi akustikoa Atekabeltz gaztetxean.

Martxoak 3, larunbata

9.30 Izen-ematea zinean.
10.00-12.00 Mahai-inguru nagusia: Eredu ekonomiko eta sozial feminista eraikitze bidean; gaurdaniak, urratsak emanez.
12.00-14.00 Eztabaida tailerrak: zaintza, elikadura subiraizta, osasuna, prostituzioa, emakume presoak.
14.00-16.00 Bazkaria.
16.00-20.00 Esparru anitzetako jardun feminista ezagutuz: Alternatiba sozio-ekonomikoak, duintasunerako gakoak; Hezkidetzeta Lau Haizetara; Autodefentsa Feminista; Praktika artistiko feminista; Kazetari feministen sarea harilkatzen, Sexualitate.
20.00-04.00 Afaria eta festa Atekabeltz gaztetxean: kontzertuak, dj-ak...

Martxoak 4, igandea

9.30 Izen-ematea zinean.
10.00-12.00 Mahai-inguru nagusia: Independentzia dugu bidea, eta helburua: Euskal Herria feminista.
12.00-13.00 Ondorioen kontaketa eta ekitaldia.
Haurtzaindegi zerbitzua egongo da hiru egunetan zehar.

Lopetegik kontaktzen duen bezala, Leitzako Emakume Abertzaleon Topaketen ondorioz. Tolosan aurretik emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako talde bat bazegoen baina gogorik eta indarririk ez zuenez Bilgune Feminista bezala aritzeko gaur egun Tolosako Bilgune Feministak partaide diren Oihana eta Maritxu harremanetan jarri eta taldearen zuzendaritza hartu zuten. Oihana Lopetegik gogora ekarri bezala taldearen hasierako lana "eskualdeko eragile batzuekin bildu eta gure burua aurkeztea izan zen". Denborarekin ordea, eskualdean "erreferentzialtasuna" hartu dutela iritzi du Oihanak, hala ere "zailtasun asko" ere tartean izan dira: "guk hasieran uste genuena baino askoz zailtasun gehiago izan ditugu. Aurre lanketa falta zen. Gure inguruko jende askok ezezkoa ematen zigun festa parekideak bezalako proiektuak aurkezterakoan". Gaur egun ordea, "oraindik asko daukagu egiteko baina orokorrean beste erantzun bat jasotzen dugu, askotan agian politikoki zuzenean gurekin garelako".

Eskualdeko talde feminista bakarria

Tolosaldeko talde feminista bakarria izanik, "gure eginkizu-

na ikuspuntu feminista ahalik eta gehien zabaltzea da eta ahal den ikuspegi positiboenetik gainera", dio Eiderrek. Hala ere, bestelako erakunde eta elkarteekin harremanak lantzen dituzte, Berdinbide -Parekide-tasunaren aldeko gizonetzkoen aldeko emakume taldeak oso baikortzat ikusten dituzte Bilgune Feministatik -emakume artistak, denboraren bankua, emakume etorkinak..., eurekin harremanak sortu, elkar babestu eta sareak osatzea beharrezkotzat jotzen dute.

Hala ere, Bilgune Feminista herri mugimendua dela kontutan hartuta, erakunde publikoetatik bereiztea garrantzitsutzat jotzen dute: "instituzioen martxan eta dinamikan sartuz gero erabat jaten zaituzte. Garbi bereiztea gustatzen zaigu. Instituzioek euren tartea dute eta herri mugimenduek euren; espazioak eta lan ildoak ezberdinak dira". Elkarlana, hala ere, beharrezkotzat jotzen du Eider Elduaiekin baina herri mugimendua orain artean egindako lanaren aitortza ere falta denaren iritzia du: "instituzioetatik falta handia dago mugimendu feministak urte hauetan egin duen lanari bere balioa emateko. Azken urte hauetan, instituzioek mugimendu feministaren irakurketa bereganatu dute, irakurketa instituzionalizatu dute eta horrek berdintasun formal batean bizi garelako ezer aldatzekorik".

Lan ildoak

Tolosako Bilgune Feministak jorratzen dituen lan ildo nagusien artean indarkeria sexistaren aurkako borroka, jai parekideen sustapena eta publizitate

sexistaren salaketa bezalako oinarriak daude.

Indarkeria sexistaren aurkako borroka Tolosaldeko Bilgune Feministaren euskarrietako bat da. Azaroaren 25ean lanketa berezia egiten dute eta urte osoan zehar erailketak edo kasu bereziak ematen direnean salaketa eta protokoloa aktibatzen dute Emakumeen Mundu Martxako plataformako partaide diren aldetik, LAB, ELA eta EHNE sindikatuekin batera. Eraiketa bat dagoenean, 48 orduetara mobilizazioa deitzen dute kalean; salaketa zuzena kalera eramanez.

Bestetik, Tolosaldeko Bilgune Feministaren beste lan ildoetako bat jai parekideak bultzatzea da. Eider Elduaiekin gogora ekarri bezala "festak jende arteko isla garbia dira eta leku askotan emakumezkoak ikusi ezinak gara. Alderdi publikoa gizonetzkoena izaten da, emakumezkoak eremu pribatua esleitu izan zaigu, nahiz eta azken urte hauetan aldatzen ari den".

Jai parekideak aldarrikatzearekin emakumearen presentzia jailetan bermatu nahi du Tolosaldeko Bilgune Feministak. Horretarako, www.emakumeokplazara.org ekimena tresna ezinbestekoa suertatzen da: "emakumeen sorkuntzari oihartzuna emateko tresna bat da", dio Eider Elduaiekin. Bertan Euskal Herriko emakume sortzaileen kontaktuak azaltzen dira, edozein herriko jaiak antolatzeke garaian emakume sortzaileekin harremanetan jartzeko aukera ahalbidetzen duena.

Honakoa jaien egitaraua osatzeko garaian kontuan hartzekoa, baina festetako momentu asko eta asko ohitura eta tradizioekin lotuta daudela gogoratzen du Eiderrek -San

Joanetako Bordon dantza edota Inauterietako txupinazioa... Tolosaldeko Bilgune Feministaren partaidearen iritzi oihura eta tradizio hauek garai berrietara egokituz mantendu behar dira, desfasatuta geratu ez daitezten, zentzua izan dezaten eta gaurko gizartearen ispilu izan daitezten. Horregatik, ezinbestekotzat ikusten dute eraldaketa ohitura eta tradizio askoren aurrean jaiak benetan parekidean izan daitezten. **Aurrera begirakoak**

Aurrera begira, Eider Elduaiekin zehaztu bezala lan handia du Bilgune Feministak oraindik egiteko, bereziki belaunaldi berriekin, "ofizialki berdintasun formal batean jaiotakoek askoz zailago ikusten dute parekide-tasun falta". "Legez berdina garelako", azpimarratzen du Oihanak.

Aurrera begira Bilgune Feministaren erronketako bat bestelako talde feministekin aliantzak sortzea izango da, Euskal Herrian dauden tankera

ezberdineko talde feministekin: "gure helburua ahalik eta emakume gehiagorengana iristea da, sarea osatu, eztabaidatu eta subjektu feminista gehiago lortzeko".

Honakoa da Eiderrek, Oihanak eta Anek aurreratu diguten egin beharretako bat, baina aurrerantzean landu beharreko lan ildo ezberdinak ordea, martxoaren 2, 3 eta 4ko Leitzako topaketan zehaztuko dira. Hamaika egiteko baitira Bilgune Feministak.

Adi! Emakumeok mundua hankaz gora jartzera goaz eta!!! ja, ja, ja

Inauteriak 2012

2012 urtean mundua bere amaierara iritsiko zela iragarri zuten maiek. Ez zaio horretarako asko falta gizonetzkoek agindutako mundu honi!... Krisia batean eta bestean. Emakumeok gure alternatiba ezartzea goaz. Adi! Mundua hankaz gora jarriko dugu eta! Ja, ja, ja...Hemen gara emakume baserriarrok, sexu langileak, etxeoandreak, etorkinak, erizainak... eta mundu aldre-



bestu hau beste kolore batzuek margotzea goaz! Aurtengo Tolosaldeko Inauterietako asteartean elkartuko gara Emakumeon Gailurrean eta bertan, munduaren norabideak zein izan behar duen erabakiko dugu, guk emakumeok. Hitza eta erabakia gureak ere badirelako!

Emakume baserriarrok, atxurrak eta itaiak eskuan, bestelako baloreak ereingo ditugu gure lurretan, elkartasuna eta parekidetasuna bezalako baloreak. Egungo munduak gutxietsitako eremu

pribatua, publikoaren pare jarriko dugu etxeoandreak, zaintza eta heziketari duten garrantzia

emanen. Adi erizainekin! Gaizki portatuz gero eta lizunkeriren bat askatuz gero, ez dagokizun sendagaia edo pozoia sartuko baitizugu eta zu konturatzerako! Ja, ja, ja...

Sexu langileok gure gona motz eta zapata takoidunekin aterako gara kalera guztiak elkarrekin zarata egitera. Txulo nazkagarri guztiak atzean utzi eta kolektiboaren gainetik! Historian zehar izandako emakume espioi, abenturera eta lapur guztien oroime-

nez gehien duenari kenduko diogu gutxien duenari emateko. Bankuak atrakatuko ditugu banaketa justua eta elkartrukea defendatuz! Pin, pan, pun!

Eta gustuko ez dugun jarreraren bat sumatuz gero, adi, garbitzailearen fregona gainean jarri eta suzko bola batean sartuta aldendu baitzaituzte gure Anbotoko Marik! Baina hain gaiztoak ere ez gara. Askok diote emakumeok oso maitakorrak eta sentiberak garela. Noski baietz, eta muxuak eta besarkadak banatzea ere oso gustuko dugu. Emakume bigotedun eta bizardunaren muxu iletsuak eta besazpi iletsudun besarkadak banatuko ditugu aurtengo Inauterietan! Ja, ja, ja...Eta adi! Oste-gun gizenan jandako txistorrak oraindik bere efektua egiten jarraitzen baitu, gogoratu emakumeok ere puzkarrak botatzen ditugula. Gehiegi gerturatuz gero beraz, badakizue zer daukazuen! Ja, ja, ja...

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Erremeritari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGURAS
BILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

**Martin
Eceizabarrena**

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobiela: 608 774 822

**J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK**



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Leidorren, martxoaren 2an, NORA ikuskizuna

Mikel Urdangarin

“Euskaraz zergatik abesten duzun galdera, European desagertzen da”

Euskal Herriko bazter ezberdinetan aritu ondoren, Tolosan izango dira Mikel Urdangarin eta Traspasos dantza taldea Nora ikuskizunarekin.

Birak udaberriari amaiera izango duela kontuan hartuta, azken aukeratarikoa izango da Tolosakoa. Kantu, poema eta dantza uztarketa eskainiko dute Nika Bitchiashvilli-ren biolina eta Koldo Uriarteren pianoaren laguntzarekin. Ikuskizunaz zehatzago mintzatu zaio Mikel Urdangarin Galtzaundiri.

Naiara Roldán de Aránguiz

Datorren martxoaren 2an, ostiralean, 20.30ean, Mikel Urdangarinek Traspasos dantza taldearekin batera Nora ikuskizuna aurkeztuko du Tolosako Leidor aretoan. Mikel Urdangarin hitzetan “kantuak, poemak eta dantza uztartzen diren ikuskizuna da Nora”. Konpositore amorebietarrek berritasuna beti ez dela bilatu behar uste badu ere, ikuskarik honek “kantuak dantzatuak izatea eskaintzen du”. Dantza emanaldi gehienek musika banda badute ere, kantuak dira kasu honetan eskaintzen direnak, “kantuak hasi eta amaitu egiten

dira”. Ildo narratibo zehatzik ez badago ere, Urdangarin hiru diziplinak elkarrekin lotuak azaltzen direla eta kanta bakoitzak bere mezua igortzen duela dio. Alderdi poetikoa Edu Zelaieta-ren poemei dagokio.

Proiektuaren lehen pausua duela lau urte eman zen. Traspasoseko dantzariak Mikel Urdangarin kantu batekin lanean hasi zirenean: “ni zeharka enteratu nintzen, beste ikuskizun batean ikusi nituen”. Lehen topaketa horretatik abiatuta elkarrekin proiektu bat garatzeko asmoa sortu zen, “elkarrekin lan egiteko grina”. Marga Arroyok eta Gema Espinosak zuzenduriko dantza garaikide taldeak Urdangarin abestien aukeraketari ekin zion. Ondoren Mikelek berak kanpoko erreferentziaren bat ere gehitu nahi izan zuen, Silvio Rodriguezen “Óleo de una mujer con sombrero” horren adibide da; “ikusizunarekin, mezuarekin eta kantutegiarekin bat zetorrelako”, aukeratu zuela dio musikariak.

Ikuslea gehien harrituko duena, “dantzaren bitartez kantuak beste dimentsio bat hartzea” da. Mikelek berak aitortzen du berak dantzagariak ikusten ez zituen kantuak dantza bihurtu direla, “gauza goxo eta bizi bilakatuta”.

Nora emanaldiak galdera bati erantzuten dio, “nora goaz, nora joan behar dugu”, galdera ho-

rrek laburbiltzen du ikuskizuna: “askotan geldirik gelditzen gara, beldurragatik paralizatuta, baina musikak geldiketa hori haustu egiten du, mugimendua ekartzen du”. Bidaia proposamen bat ere badela dio Urdangarin.

Taula gainean lau dantzari arituko dira, hala ere, kantuaren arabera kopurua ere aldatuko da. Dantzariet gain, musikariak ere eszenatoki gainean jardugo dira. Mikel Urdangarinekin batera Nika Bitchiashvilli biolinean eta Koldo Uriarte teklatuan izango dira: “hirukoa osatzen dugu, espazio horren parte gara, dantzariet parte egiten gaituzte baina musikariok elkarrengandik aparte gaude, ia elkarri bizkarra ematen”. Horrek musikariei zailtasunak ere sortzen dizkiela aipatzen du Mikelek: “normalean elkarrengandik gertu gaude, elkarren keinuak ikusiz, hurbiltasuna sentituz, baina kasu honetan oso urrun gaude eta jotzeko era oso ezberdina izaten da, ondokoa sumatzen ez dugulako. Sekulako ahalegina eskatzen digu, hurbiltasunaz ahaztu eta dantzariet ere erreparatu behar diegu”.

Hala ere, taula gainean “oso gauza bizia, bisuala eta grafikoa” lortzen dela dio musikariak, “normalean kantua airean datorrigu; kasu honetan, entzunez asko jasotzen dugu, baina baita ikusiz

ere, dantzariet kantua ikusteko duten era sumatu daiteke”.

Ibilbide luzea egin du Nora ikuskizunak Euskal Herriko eszenatokitik, emankizunak kalifikatzeko garaian, Mikelek “gozagarririk” hitza erabili du. Ohiko kontzertuekin alderatuz “tentsio gehiago” bizi duela aitortzen badu ere, beste jarrera bat eskatzen diotela dio, “oso intensoa”.

Mikel Urdangarin ikuskizunetan atzera eginez –Bar Puerto, Zaharregia, txikiegia agian...-, taula gainean arte adierazpen ezberdinen uztarketa ohikoa dela gogoratu dezakegu. Berarentzat artista ezberdinekin sortzen dituen lankidetzak defintzeko eskatu diogu: “ez dira beharrezkoak baina ez dira berez gertatzen. Beti arrazoi bat egoten da elkarrekin topatzeko. Topatzeko joera egin behar da, jarrera bat da, gose bat... Ez da beharra, suertea eta barne gogo bat izaten da, bizitzan jende berria ezagutzeko beharra”.

Artista ezberdinekin lanketak osatzea beharra ez, baina Euskal Herriko kanpora jotzen aritzea bai beharrezkotzat jotzen duela Mikel Urdangarin. Tolosa utzi eta hurrengo egunetan Liverpool eta Birmingham-en izango da musikari bizkaitarra: “Euskal Herriko kanpora aritzea, hau bai beharrezkoa izaten dela. Euskal Herria guretik gertuena, espazio naturalena, fisikoki txikiak gara, badakigu zer dagoen... Kanpora ateratzea mesedegarria da, arnasa ematen dizu, airea bezalakoa



da”. Honela, adibide gisara abenduan Londresen eskaini zuen kontzertua gogora ekartzen du, Londresen bi orduz euskarazko kontzertu bat eskaini ahal izatea, Londresen bi orduz euskara entzun ahal izatea oso garrantzitsutzat jotzen du Mikelek: “euskara bizirik”. Euskal Herriko kanpo euskarazko espazioak sortzea ere beharrezkoa dela iritzi du musikagileak.

Euskal Herriko kanpo aritzeak, gainera, norbere musika publiko berriari eskaintzea ahalbidetzen du: “beste entzulego baten aurrean zer nolako harremana sortzen den ikus daiteke. Aberasgarria da eta ez dadila falta”, eskatzen du Urdangarin. Atzerrira joaterakoan, Mikelek aitortzen duen moduan, galdera bati erantzun behar izatea desagertu egiten da, hizkuntzagatik erantzun behar izatea, alegia. “Zergatik abesten duzu euskaraz?”, gehiegitan erantzun behar izan duela dio

abeslariak; “European galdera hori desagertu egiten da eta horrek zer pentsatua ematen dizu”.

Aurrerantzean ere Mikelek eszenatoki ezberdinetan, Euskal Herriko zein Euskal Herriko kanpora ere, euskarari espazioa sortzen jarraituko du, tartean Nora eta Zuzenean kontzertuekin: “bi horiekin nabil momentuan. Behartuta gaude epe motzera bizitzera eta horretan nabil, ahalik eta kontzerturik txukunenak eskaintzen. Bagabiltza kantu berriak prestatzen baina beste eritmo batekin. Konposatzea lan atsegina, inspiragarri hutsa da; beti gauza berriak, istorio berriak sortzera behartuta...”. Baina Mikel Urdangarin dioen moduan “lehenetsunak daude” eta momentuan momentukoari erreparatu behar zaionez, momentuko martxoaren 2an Leidorren eskaini beharreko Nora ikuskizuna.

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan eguneroko.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketak.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarik mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



errrotatxo okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

Paula Kasares

Axola al zaizkigu gure seme-alaben hizkuntza portaerak?



Galdera hori eginez hasi zuen Paula Kasares soziolinguistak pasa den otsailaren 9an Tolosako Orixeko institutoan eskaini zuen hitzaldia. Besteak beste, ikastetxez kanpoko jardueretan euskara erabiltzeak duen garrantzia nabarmendu zuen.

Igor Mujika

Kasaresen iritzian, "gizar-te elebidunean bizi garelako guraso gisa ez gaude egoera zailagoan. Elebitasuna oso egoera normala da munduan. 5.000 hizkuntza inguru daude munduan eta munduko lur azala 200 bat estatutan banatuta dago. Atera kontuak zenbat hizkuntza dagozkion estatu bakoitzari. Gauza bitxia, beraz, Logroñokoa da, eta ez Tolosakoa".

Bide beretik jarraituz, ondokoa azaldu zuen Kasaresek: "Hemen badugu hizkuntza bat, historikoa eta bertakoa. Eta, bertakoa eta historikoa izanik ere erakundeen babesik izan ez duena. Baztertua izan dena eremu prestigiatu, ofizial eta jasoetatik, duela 40, 30 urte arte aukerarik izan ez duena gune jaso eta prestigioatu batzuetan sartzeko, adibidez, hezkuntza munduan edo erabileraadministratiboetan, Hori oso gauza berria da. Eta, gure hizkuntzak gora-beherak izan ditu: galdu zituen hiztunak, familiak, herriak, Hiztunak ondoan duten hizkuntza nagusiago batera ohitzen direlako, indartzen edo ahultzen dira hizkuntzak. Orduan, hauetuek oso garrantzitsuak dira".

Kasaresen arabera, "euskara, azken 30 urte hauetan, gora doan hizkuntza da. Berreskuratze prozesu batean dago, eta, batez ere, hezkuntza mundutik eta belaunaldi berrietatik ari da bultzatzen berreskuratze prozesu hori. Hori oso garrantzitsua da. Ondoan beste hizkuntza bat dugu eta hizkuntza handia da bera. Gure hizkuntzako hiztunak ez dira 1.000.000 izatera iristen. Baina, gainera, handia dugun

ondoko hizkuntza horrek, 320.000.000 hiztun ditu munduan. Munduko 22 estatutan hizkuntza ofiziala da. Kultura zabalaren adierazpidea da beraz, eta bere atzean interes ekonomiko, handiak ditu. Hori kontuan hartu behar da. Izan ere, gure seme-alaben hizkuntza ohiturek horrekin dute zerikusia: atera dira familiaren gonapean egotetik mundura, eta, munduan aunitz gauza erakargarri, indartsu, beste hizkuntza batean garatzen dira".

Zer egin dezakegu?

Bigarren galdera ere luzatu ziren Orixera gerturatu ziren gurasoei: "eta zer egin dezakegu familietatik hizkuntza portaerak indartzeko? Edo, gure seme-alabak euskaratik ez urruntzeko?"

Bigarren galderari erantzun aurretik, Tolosako erroldatik ateratako datuak mahai-gaineratu zituen Kasaresek: "Tolosan, 10 biztanletik 6,5 inguruk, euskara ongi dakielako dio. 10etik 2k, zerbait badakiela esaten du. 1,5k, berriz, ez dakielako deus esaten du. Euskaraz ongi dakitenen erdiek etxean ikasi dute hizkuntza, eta hori oso garrantzitsua da", Kasaresen arabera. "Etxean ikasten den hizkuntza, haurtzaroen ikasten dena, normalean errotuagoa egoten da hiztunaren baitan. Hura erabiltzeko ohitura handiagoa izaten da, hiztuna erosoago sentitzen delako".

Tolosako gazteen artean, berriz, ia %100 da euskalduna, besteak beste, Tolosako ikastetxeek D ereduaren aldeko apustua egin dutelako. Jakitea

Gurasoentzako ariketa Nolako harremana dute gure seme-alabek hizkuntzekin?

1 Nondik jasotzen dute gure seme-alabek hizkuntza bakoitza?

	etxetik	kaletik	eskolatik	komunikabideetatik	bestelako bideetatik
Euskara					
Gaztelania					
Ingelesa					

- Eman daitezkeen erantzunak: guztiek, gehienek, batzuk, inork ez,...
- Nahi baduzue, horiei erantsi: asko, gutxi, zerbait,...

2 zein harreman dute hizkuntza bakoitzarekin?

Zure seme-alaben lekuan kokatu. Erantzun galdera hauetara:

- Zein izan da iazko bidai edo txangorik hoberena?
- Zein izan da ikusi duzun ekitaldirik bereziena eta emoziorik handienaz gogoratzen duzuna? (kontzertua, zinema, kirola,...)
- Zein izan da parte hartu duzun jarduerarik gustukoena eta indartsuena?
- Zein esperientzia izan da positiboena bikote, familia edo lagunartean dagoenak?
- Zein izan da jaso duzun oparirik hoberena?

3 zein mezu jasotzen dituzte gizartetik hizkuntzei buruz?

Zein mezu jasotzen dituzte gizartetik hizkuntza hauetara? Zein hizkuntza irudikatuko dute hitz hauetatik gertuago? Kokatu lau hizkuntza hauek hurrenkeran, hurbilenetik (1) urrutienara (4):

Euskara, gaztelaniera, ingeleza eta txinera


	1	2	3	4
Moderno				
Tradizionala				
Beharrezkoa				
Zaila				
Lanerako aukerak irekitzen dituena				
Etorkizuneko hizkuntza				



Ione Gorostazu
Irakurlea

Harkaitz Cano, Twist

Baina Harkaitz Canoren nobela, egileak hala nahita, izenburuak hain pista gutxi ematen dizkiguna, gerra zikineko gertaera baten kontaketa izatetik askoz urrunago joaten da. Izatez, gainera, ez dira hainbeste, tamalez egunkarietan hozkirria eragiten duen zehaztasunez irakurtzen ditugun torturei eskainitako orriak, ageri direnak oso ongi landuak badira ere. Egilea haratago doa, eta beste hainbat gai zabalago jorratzen ditu, hala nola iraganak guregan duen eragina, pisua, boterea. Askotan egun baten itzala urtetan, hamarkadetan, gure bizitza guztira luzatuko zaigu, eta itzal horren arabera haziko, osatuko gara. Itzal hark egingo gaitu, eta, bota begiratu bat liburuaren azalari, azken finean ez dugu jakingo geure irudia den ispiluan ikusten duguna, edo haren isla, edo geu garen gure islaren isla...



Diego Lazkano da Twist-en pisu handiena duen pertsonaia; torturatu eta hil, desagerrarazi zituzten Soto eta Zeberioaren laguna zen, eta, gainera, artean gidabaime-na atera gabe izatea bezalako xehetasun itxuraz hutsal batengatik ez zen izan bera Sotoren lekuan. Eta nik egon behar nuen han pentsamendu horri ez dio bueltarik emango. Berea ez den bizitza biziko du, edo horretan saiaturiko da,

behintzat, nolabaiteko zorrak kitatzea aldera, erruduntasuna eta gaztaroan hain ohikoa den lagunenganako miresmen neurrigabea atzean utzi ezinik.

Erruduntasunaz gain, baina, giza izateko txoko ugaritan zehar bidaiatzen du Harkaitz Canok, hala nola asko gustatu zaidan eta sarri errepikatzen den egoera bat, pentsatu eta esaten ez diren gauzeta, alegia. Liburuko pertsonaia guztiek dute buruan jira-biraka edo erraietan itsatsirik ezpainenak marrazten ausartzen ez direnik, ideia hutsalenetik hasi eta ekintzarik lazgarrienera. Eta pentsatu baina esan gabeko horiek, hein batean, denok berdin egiten gaituzte, denok gure ezintasunen morroi eta, neurri handi batean, bizitzako antzezlanean eskaini diguten papera ahalik eta hobekien beteaz, alde bateko edo besteko.

Nobela honetan, izan ere, guk nahi baino nahasiago, lau-soago sumatzen dira aldeak, hau ez baita batzuk bestearen aurka jokatzeko duten futbol partida; han eta hemen dauka hari ezkutuak, edo, besterik gabe, hariak; dirua dela, familia dela... Eta, onerako edo txararako, guztiok bizi gara mundu berean. Edo, behar bada, bakoitzak bizi du bere mundua, edo bizi du norbera bere munduak... zalantzak zalantza, ertzak ertz, gauzei buelta bat eta gehiago emanarazten duen nobela da Twist. Gomendagarria, oso.

iraintzea da, lagunak xaxatzea, taldean konplizitateak egitea, ironiak egitea,... eta gerta daiteke eskolan erabiltzen duten hizkera moldea eskasa izatea haiek duten adierazi behar horretarako".

Bide horretan sakonduz, "erabilera informalak,... eskolatik kanpo ikasten dira. Batzuetan handietsi egiten dugu eskolak gure haurren bizitzan izan dezakeen eragina. Ikastetxeek lan oso ona egiten dute, baina ikastetxeek ezin dute egoera irauli. Eta hizkuntza, batez ere, bizitzan ikasten da, ikastetxean eta ikastetxetik kanpo", gaineratu zuen Kasaresek. "DBH-n diren gazteentzako, gurea da eta zaindu egin behar dugu,... eta antzeko argumentazioek ezer gutxirako balio dute. 12 urterekin ez daude horretarako. Balioak landu egin behar dira baina beste modu batera, eta ez modu arrazionalen".

Baloreen transmisioa

Kasarezen ustetan, "batzuetan ez gara ohartzen familiek hizkuntzari lotutako balore asko transmititu ahal dituztela eta oso garrantzitsua da, modu tazitoan, esplizitua izan gabe, zer transmititzen diegun gure haurrei". Ildo horretan, euskaraz ez dakiten gurasoek beren haurrei "ze ilusioa egiten didan zuk euskaraz egitea", modukoak esatea oso garrantzitsua dela nabarmendu zuen.

Halaber, ikastetxez kanpoko jarduerak gazteen hizkuntza ohituretan duten garrantzia nabarmendu zuen Kasaresek: "oso garrantzitsua da eskolatik kanpo euskarazko bizipe-

nak izateko aukera eskaintzea kirol munduan, musikan,...". Bide horretan sakonduz, zera adierazi zuen Kasaresek: "hizkuntza informalak askoz ere harreman gehiago du eskolaz kanpoko munduarekin eskola barneko erabilerarekin baino. Lagunen arteko hitz egiteko molde bixi hori, arrunt informala dena,... ez da ikasgelan ikasten eta garatzen, baizik eta berdinekin izaten diren harreman ez akademikoetan, eta hori zaindu beharkekoa da. Tolosako haur eta gazteek euskaraz ikasten dute,... Eskolaz kanpoko jarduerak ere eskaini diezazkiegun euskaraz. Erankudeetatik bereziki zaindu beharko litzateke eskolaz kanpoko jardunak euskaraz eskaintzea. Eta batzuetan, badakigu, eskaintzak ez direla erakunde publikoetatik etortzen, klub edo elkarte pribatuetatik baizik, baina, hori saritzeko, laguntzeko bideak bilatu beharko lirateke. Ezinbestean landu beharreko eremua da", Kasaresek azaldu digunez.

Azkenik, Helene Cixoux intelektual frantsesaren gogoe-ta esplikatzen zuen: "transmisioa ezagutaraziz maitatzea dela dio. Transmisioa irautearekin lotzen du. Helburua: gure gaztetxoek harreman estua egitea hizkuntzarekin. Senti dezatela berea, sar dezatela bere bizitzan, identifika daitezela hizkuntzarekin. Hori da fidelitatea. Hori da hizkuntza bazter utziko ez dutenaren bermea. Horretarako, euskara ez dakiten gurasoek ere asko egin dezaket: erreferenteak eman, D ereduan eskolatzeo hautua egin,..."

eta erabiltzea bi gauza ezberdin dira, ordea, eta euskararen erabilera datuak aldatu egiten dira haurtzarotik gaztarora salto egitean. Tolosan egingandako kale neurketen arabera, 0-15 urte artekoen %75ak euskaraz egiten du kalean. 15-24 urte artekoen artean, berriz, %52k egiten du euskaraz kalean.

"Haurrek euskaraz egiten dute baina momentu batean,... zer gertatzen da? zer dela-eta hasten dira gazte-eraz?", galdera luzatu zuen Kasaresek.

"Hizkuntza bat ongi jakiteaz ari garenean ez gara ari ondorio akademiko huts bat izango duen jakintza. Euskaldun izateaz ari naizela, ez naiz ari euskara eta euskal litera-

tura gainditzeaz,... ez da bete-behar akademiko hutsa, ez da eskolako betekizun hutsa. Gure seme-alabak eguneroko bizitzan, euren behar sozial, ludikoetan,... nola moldatuko diren da garrantzitsua. Hizkuntzak ongi jakiteak harreman zuzena du segurtasun pertsonala emango dion hizkuntzarekin, garatuko duen identitatearekin, egingo dituen gizarte harremanekin,..."

Eta, Kasarezen ustez, "hizkuntza batean zu zeu izatea ez da berehala lortzen den zerbait." Izan ere, bere iritzian, "batzuetan ez gara ohartzen gazte bat zeregin akademikoetarako oso ongi molda daitekeela hizkuntza batean baina bizitza,... ez da zeregin akademikoa soilik. Bizitza

Karlos Linazasoro: "Bizitzak dena ematen dizu baina denborak aurrera egin ahala gauzak kentzen dizkizu"

Karlos Linazasoro idazle tolosarrak Xabier Lete I. Poesia Sariketa irabazi berri du "Ezer gehiago behar gabe" lanarekin. Liburua eskuartearen izateko martxoaren 29a bitartean itxaron beharko du irakurleak. Bitartean, berarekin mintzatu da Galtzaundi; eta baita oparia jaso ere: poemategi saridunaren olerki bat.

Naiara Roldán de Aránguiz

18

Lourdes Otaegik, Tere Irastortzak, Igor Estankonak, Jose Angel Irigarai eta Joxerra Garziak osatutako epaimahaia "Ezer gehiago behar gabe" lana 10.000 euroekin eta Jose Ramon Anda artistaren egiaztagiri artistikoarekin saritu dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren deialdiaren bitartez. Hala ere, honakoa ez da Linazasorok 2012. urtean kaleratuko duen liburua bakarra. Utriusque Vasconiae argitaletxeak "Apenas" lana prest du, Durangorako kalean behar zuen baina arazoak arazo kaleratze data atzeratu egin da. Idazleak, "Apenas" lana "diario poetiko surrealizatza" kalifikatu du, 2010. urtean idatzitako 150 testu labur egunerokotasunarekin lotura daukatena.

Lehenik eta behin zorianak esatea dagokigu, 22 lanen artean zurea garaila atera da. Nola hartu zenuen Xabier Lete I. Poesia Sariketa irabaztearen berria?

Poz handiaz, ilusio handiaz. Ba-

nekan esperantza txiki bat, beti izaten da esperantza. Mardula, trinkoa eta urte askotako lana zen eta nik esperantza banuen. Xabier Lete I. deialdia zelako ilusio handia nuen, beregatik ere.

Izan ere, Xabier Lete laguna zenuen... Berezia izan al da sariketa honetara aurkeztea?

Etxean beti miretsi izan dugu Xabier Lete; lehenago kantari gisa, bere kantuak... Ni idazten hasi nintzanean, bera ezagutzeko suertea izan nuen. Berak esaten zuen izaera aldetik nahiko berdina ginela, bagenuela ukitu melankoliko bat; brometan, txantxetan aipatzen zuen hori. Xabierren kantuetan ikusten da ironiaz, umorez jarduten dela. Badauka alderdi nostalgiko, sakon hori eta badauka beste alde batetik alderdi umoretsu, ironiko eta fin hori ere. Agian Xabierri bertsolaritzatik datorkio umore edo grazia hori. Nik ere badauka, nire liburuetan argi ikusten

da ironia eta umorea. Beharbada Xabierrena eta bion ez da berdina, baino biok alderdi horiek ditugu; nolabait konpentsatzen eta orekatzen direnak.

Nire liburuetan autoironia handia dago, baina batez ere prosazko lanetan. Liburu honek ia ez dago batera ironiarik. Liburu nostalgiko, sakon bat da; heriotza asko azaltzen da. Lehenengo poemak nire ama hil baino hilabete batzuk lehenago idatzitakoak dira. Giro hori jasotzen da. Nire betiko gaiak eta kezak, obsesioak azaltzen dira. Heriotza, denboraren iheskortasuna, bizitza zer nolako abailan doan...

Izadia, maitasuna, denbora... zure idazkeran presente dauden gaiak dira. Arduratzen gaituzten gai unibertsalak izaten jarraitzen dute?

Gai unibertsalak dira; nire kezak horiek dira, horiek barruan sortzen dira eta kanporatu egiten ditut. Gai unibertsalak dira,

nik uste horiek direla gizakiaren gai nagusiak eta beti hala izango direla.

"Ezer gehiago behar gabe" izenburuaren atzean zer aurkituko du irakurleak?

Bizitzak dena ematen dizu baina denborak aurrera egin ahala gauzak kentzen dizkizu, tituluak horri egiten dio erreferentzia. Une batean konturatzen zara hori dela dena eta ezer gehiago behar gabe horrekin bizi behar duzula. Nolabait konformatze bat da, dagoenarekin konformatu behar duzu. Guztia ematen zaizu baina pixkanaka-pixkanaka denborak gauzak kentzen dizkizu eta oinarri-oinarrizkoena dena bakarrik uzten dizu.

Jaiotzerakoan, haurtzaroen, umeak erregea dela, jainkoa dela, hilkorra ez dela uste du. Denborak aurrera egiten du eta ume horrek infantzia galtzen du, paradisua galtzen du, inozentzia galtzen du eta hilkorra ez dela, errege bat ez

dela konturatzen da.

Heldutasunean nolabait min, galketa horrekin bizi behar duzu. Ikasi behar duzu bizitzen. Agian oso gauza sakona izan liteke baina horrekin jakin behar izaten da bizitzen. Egia da ezer gehiago ez dagoela eta ezer gehiago behar gabe etsi egin behar den momentua iristen dela. Daukazunarekin bizitzen ikasi behar duzu; azkenean bi gauza besterik ez daude, ez dago besterik.

Bildumak 100 poema baino gehiago biltzen ditu, 7 urtetan sortuak, amaren heriotza erreferentzia dela... Berari bereziki eskainiak al dira?

Liburuak bost zati ditu eta bat bereziki berari dedikatua dago. Bera hiltzen den unean, giro horretan murgilduta dago, zati hori batez ere berari eskainia dago. Bizitzari buruzko hausnarketak eta azken finean nire betiko gaiak ere azaltzen dira; denborarekin gauzak nola galtzen ditugun, min hori azaltzen da.

Liburua udaberri aldera kalera-tuko dela aurreikusirik dago. Dagoeneko data zehaztu al da?

Gaur jakin dut Pamielak atera-ko duela bere poesia sailean, sariari erreferentzia eginez. Sari bataketa, ospakizuna, martxoaren

29an egin nahi dute eta beraz, egun horretarako liburua kalean izatea nahi dute. Teknikoki azken zuzenketa txiki batzuk egiteko denbora badago, baina festa horretarako liburua kalean egotea espero da.

Oraingoan poesia landu duzu baina genero oso ezberdinak jorratzen dituzu. Nolako lanketa eskaintzen diozu bakoitzari, zer eskaintzen dizu bakoitzak?

Ez dakit. Joan Margaritek esaten zuen poesia ez dela literatura, beste gauza bat dela. Ni nahiko ados nago horrekin. Testu bat, dena delakoa, -ipuinak, umeentzako literatura, gazteentzako literatura, nobela bat, errelato bat... nolabait eseri, idatzi eta egin egiten da, baina poesia beste gauza bat da. Lehen musak izaten ziren, inspirazioa...

Azkenean kontzientzia dela uste dut. Poesia bera zure bila etortzen da. Ezin duzu zuk nahi duzunean idatzi, berak jotzen du zuregana, bera ateratzen da. Askotan irudi bat gelditzen zait buruan, ez naiz jabetzen, egun batzuk beranduago berri-ri ere burura datorkit eta kontatu behar dudana zerbait dela konturatzen naiz. Askotan esaldi bat etortzen zait,

normalean lehenengo esaldia izaten dena. Ahoan erabiltzen dut, hausnartu egiten dut eta azkenean jarri egiten naiz. Alde horretatik, inspirazio ukitu hori behar izaten da baina beste parteak ere badago, ofizioarena. Jende orok izan dezake inspirazio bat, ideia bat, gogoia, baina gero ofizioa behar da. Ofizioa ikasi egin behar da. Ofizioa denborarekin, idatziz eta irakurtzarekin ikasten da. Ofizioa, batez ere irakurtzea eta idaztea. ☺

"Ezer gehiago behar gabe". (26)

Arrats sehaskatua bi txori.
Kantuz josten dute
airearen haria,
kantuz musukatzen
gure zauriaren lamara.
Isilik gelditu dira bat-batean,
beldur antigoaleko batek
jota bezala,
eta hegaldatu egin dira
haragiz beterik.
Eta orain, isiltasunean,
hobeto entzuten da
beren ausentzia,
argian utzi duten
gure izenen inauteria.



Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com
943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bialara 25, 1-04 atna
20271 Iruia (Gipuzkoa)

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759
Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoko
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

0100100
00111100
00111100
00111100
Tolosa Bit
Informatika Zerbitzuak
Oinarritutako eta konpostatu
Eguzki eta partikularizazio
Materiazkoak
Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

19

irakurri
entzun
Ikusi

Egarri egunak portualdean
Koldo Izagirre

Egarri egunak, bai, 1977ko uda hartakoak: asean gozatu nahi ditu gazteria matxinatu batek askatasuna, maitasuna, berdintasuna, edertasuna. Egarri anitz honek gatazkan murgilduko du heziketa sozial eta sentimentalean aurreneko pausoak ematen ari den protagonista, hats kolektiboaren eta indibidualismoaren artean bere ezintasun, ahuldade eta ametsekin, gizotasun berri baten bila.

Maiatzean meatzean
Basaki

2012ko Ibilaldiaren kantaren lehiaketa ospatu eta gero, Basaki taldea garaile atera da "Maiatzean meatzean" kantarekin. Bost taldek lortu zuten finaleira iristea baina azkenean Basaki taldekoek eraman dute saria. Taldearen azken diskoa 2011ko maiatzean kaleratu zen "Egunero hasten da" izenburupean.

Amona Putzi
Telmo Esnal

Laburmetraia. 9 minutu. Kimuak. Egoitz Lasa, Nagore Aranburu eta Kontxu Odrizola aktoreak ditu protagonistak. Batzuetan, ume txikiak dituzten senar-emazteek amona faltan botatzen dute, batzuetan bakarrik.

Otsailaren 17tik martxoaren 2ra bitarteko hitzordduak

Iñauteriak

Ostiral Meheko Jaialdia. Otsailak 17, ostirala. Ostiral Meheko Jaialdia. 22.30. Tolosako Leidor Aretoa. Arpegik antolatuta. 15 euro. Arpegi taldeak 34. urtez ostiral meheko jaialdia antolatatu du. Zuzeneko 10 saio eta beste 7 zine grabazioz osatutako egitaraua izango da aurten ikusgai.

Odol ematea

Alegia. Otsailak 17, ostirala. 19.00. Sendagilearen etxea
Tolosa. Otsailak 27, astelehena. 18.30. Kultur Etxea

Dantza

Dantzari Txiki Eguna. Otsailak 18, larunbata. Tolosan. Udaberri Dantzari Taldeak antolatuta.
Nora. Martxoak 2, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30. Traspasos eta Mikel Urdangarin. 10 euro. Euskal Herriko bazter ezberdinetan aritu ondoren, Tolosan izango dira Mikel Urdangarin eta Traspasos dan-

tza taldea Nora ikuskizunarekin. Mikelek doinuak jarri eta Traspasoseko dantzariak mugimendua gehituko diete, denen artean sentsazio desberdinak sortzen duten bidaia osatuz, Nika Bitchiashvilli biolin-jolea eta Koldo Uriarteren pianoa ere laguntzaile izango dituzte.

Kz Gunea

Ibarra. Kz Guneako monitorean bisita. Ibarra. Ibai-Gain, 6 behea. Otsailak 23, osteguna (16.00-20.00) eta martxoak 1, osteguna (09.00-13.00).

Ipuin txokoa

Otsailak 24, ostirala. Tolosako Haur Errota liburutegia. 18.00. 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza.

Zinea

"Amona Putzi". Tolosako Leidor Aretoa. Kimuak sailaren barnean laburmetraiaren proiektzioa. 9 minutu. Telmo Esnal. Otsailak 24, ostirala (22.30),



otsailak 25, larunbata (19.30) eta otsailak 26 (22.15).

Tolosa Kantari

Otsailak 25, larunbata. Tolosa. Tontokale. Agirre doktorea. 12.00



Antzerkia

Motel. Otsailak 24, ostirala. 22.00. Tolosako Kultur Etxea.



Sarrera doan. Vantare antzerki taldearen eskutik.

Erakusketa

May Colmeneroren Eskolako Ikasleak. Otsailaren 25a bitartean. Tolosako Aranburu Jauregia.

San Bartolome jaietako argazki-erakusketa. Martxoaren 2a bitartean. Ibarra Benito Izagirre Kultur Etxean. Kultura Sailak 700 argazki inguruko bilduma osatu zuen pasa den urteko jaietan eta horietatik 300 inguru izango dira ikusgai. Nahi duenak argazkien kopia eskatzea izango du

Motorra

Langostino Moto Kultur Elkartearen bira. Otsailak 26, igandea. 09.00etan Ibarra San Bartolome plazatik.

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Testu tratamenduen aplikazio inform. (Oinarritzko Word)	2012.02.27	30
Lan eta ingurugiro arriskuen prebentzioa txirbil harroketa bidezko mekanizazioan	2012.02.27	30
CAD-2D (Autocad hastapena)	2012.02.27	40
Hozkailu fluordunen manipulazioa. Oinarritzko maila.	2012.02.27	80
Mugikorak eta Smartphone-ak: Industriara gerturatztea, joerak eta marketing-a	2012.02.28	10
Zuhaitz eta zuhaixken inausketak	2012.02.21	20
Tamainak ez dio axola: merkataritza elektronikoa	2012.03.13	8
ETE-entzat		

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com info@ikastn.com
www.tolosaldea.com www.ikastn.com



Goardiako farmaziak


Ostirala, 17 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Asteazkena, 22 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Astelehena, 27 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Larunbata, 18 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Osteguna, 23 Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa	Astearte, 28 Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa
Igandea, 19 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Ostirala, 24 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Asteazkena, 29 Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa
Astelehena, 20 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Larunbata, 25 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Osteguna, 1 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Astearte, 21 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Igandea, 26 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Ostirala, 2 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketta-Albartziska-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian geriatrikoa	943 672 932
Medikua	Udalzaingoa	943 675 858
Baliarrain	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Medikua	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza Tolosa Gas	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

jarri zure publizitatea Galtzaundi aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egon-gela handia, bi logela, sukaldia eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegietan 100 m²-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldia, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

Horoskopoa

Otsailaren 17tik martxoaren 2ra arteko aurreikuspena

aries
Martxoak 21-Apirilak 21
Laneko kontuak etxera eramateko ohitura duzu. Lanak sortutako egoera ezberdinek zure bizitza pertsonalean eragina izan dezakete. Gertukoak ez dira laneko egoeraren errudun, gogoa izan!

taurus
Apirilak 22-Maiatzak 21
Ikasteko duzun gaitasuna bati baino gehiagori harrigarria egingo zaio. Zure sendia nazkatuta dago beti istorio berdinak entzuteaz. Istorioaren parte batez baino ez zara ohartu eta.

gemini
Maiatzak 22-Ekainak 21
Elikadura egokiaren teoria guztiak ezagun dituzu, hala ere praktikan jarzea besterik ez zaizu geratzen. Dirua kudeatzeko garaian izaten dituzun zailtasunak arindu asmoz, pertsona baten laguntza onartu beharko zenuke.

cancer
Ekainak 22-Uztailak 22
Bidaiaren bat egiteko aukera aztertzen zabilta baina gauza gehiegi dira kontuan hartzekoak. Huts eginez gero, zuzentzeko aukera egoten da eta hori izaten da aprobetxatu beharrekoa.

leo
Uztailak 23-Abuztuak 22
Familia giroa oso lasaia izango da egunotan. Atzerrian bizi diren senideekin harremana izateko aukera. Pozik egongo zara, izan ere aldaketa garrantzitsuak datoz; jaiotzak, lan aldaketak, gertuko baten etorrera...

virgo
Abuztuak 23-Irailak 22
Hilabete amaieran antsietate sentimenduari agur esango diozu. Pentsamendu ezkorralde batera utzi, eta osasunaren mesedera, bizitzeko era aldatu edo egokitu beharko zenuke.

libra
Irailak 23-Urriak 22
Bizitzako alorren bat aldatu nahi izanez gero, pentsamendutik hasi beharko zenuke. Baikorki pentsatzen hasi eta gertakizunek 180 graduko aldaketa jasango dute. Eguneroko meditazioa tartea eskaini beharko zenioke zure buruari.

scorpius
Urriak 23-Azaroak 22
Aldaketak zure bizitzako oinarrietako bat dira baina ondo egokitzen dakien pertsona ere bazara. Alderik positiboa ikusteko gaitasuna duzu eta hori oso garrantzitsua da. Ekonomiak helburu bat baino gehiago eskuratzeko lagunduko dizu.

sagitarious
Azaroak 23-Abenduak 21
Umorea aldatu eta mesfidatiagoa bihurtuko zara, baina pertsonak bereizten ikasi beharko zenuke. Pertsona guztiak berdinak ez direla oso argi izan beharko zenuke. Merezki dutenei maitasuna erakutsi iezaiezu.

capricornius
Abenduak 22-Urtarrilak 20
Oztopoak oztopo borrokan jarraituko duzu. Hala ere, beti ezin da guztiak eskuratu. Egoera benetan zailak ekiditen asmatuko duzu eta oso berezia den pertsona batek lagunduko dizu horretan.

aquarius
Urtarrilak 21-Otsailak 20
Barkamena eskatzeko garaian harrogi izateko ohitura duzu, apalagoa izan eta azalpenak entzun beharko zenituzke. Alboan dituzunekin intolerantzia izan zara. Horretan pentsatu beharko zenuke.

piscis
Otsailak 21-Martxoak 20
Egindako esfortzua bere fruituak ematen hasiko da. Osasuna aldatzea dago azken aldia baina jakin badakizu zure buruak eragin zuzena duela horretan. Elikadurari ere erreparatu beharko zenioke.



Joseba JATETXEA
Aizkibel 10
FLOREAGA JAUREGIA
AZKOITIA
TEL: 943 85 34 12
www.josebajatetxea.com



www.josebajatetxea.com

3 jangela

- Ezkontzak
- Bataioak
- Jaunartzeak
- ...



Komikia: Joseba Antxustegiarte



IÑAUTERIAK
2012
Jaiak

Elbarrena industrialdea 72-1 -
Telf: 943 888232 - Zaldibia
jaiak@jaiakdenda.com - www.jaiakdenda.com



manitso eta gustora egindako lanak
Ezkontzak, estuioak, jaurritzeak eta enpresako argazkiak.

ardanaZ
estudio 
cría kalea 4

photokafe
ELUSKAL HERRGIA PLAZA